

## LAN-ISTRIPUAK EAEn DATUAK

Azken asteotan, Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz baieztatu du 2008an lan-ezbehar gutxiago jazo direla. Datuek frogatzen dutenez, hori ez da egia.

Datu ofizialen arabera, 2007ko eta 2008ko urtariletik maiatzera arteko aldiak erkaturik, lan-istripu guztien kopuruak %10,19ko gehikuntza izan du, eta hilgarri suertatu direnen kopuruak, berriz, %36,36koa. Alegia, 2007ko urtariletik maiatzera bitarte, 39.403 lan-istripu gertatu ziren guztira, eta horietatik 22 hilgarriak izan ziren; eta 2008ko aldi berean, berriz, lan-istripuak 43.420 izan dira guztira, eta hildakoak utzi dituztenak, 30.

| LAN-EZBEHARREN ESTATISTIKAZKO LABURPENA<br>LAN-ISTRIPUAK (GIZON ETA EMAKUMEENAK GUZTIRA)    |                                    |         |            |         |                                    |         |            |         |              |         |            |         |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|---------|------------|---------|------------------------------------|---------|------------|---------|--------------|---------|------------|---------|
|                                                                                             | 2007ko urtarrila – maiatza pilatua |         |            |         | 2008ko urtarrila – maiatza pilatua |         |            |         | ALDAKUNTZA % |         |            |         |
|                                                                                             | EAE                                |         |            |         | EAE                                |         |            |         | EAE          |         |            |         |
| JARDUERA EKONOMIKOA                                                                         | ARINAK                             | LARRIAK | HILGARRIAK | GUZTIRA | ARINAK                             | LARRIAK | HILGARRIAK | GUZTIRA | ARINAK       | LARRIAK | HILGARRIAK | GUZTIRA |
| 00 Nekazaritza, Abelauntzia eta Arrantza                                                    | 376                                | 6       | 1          | 383     | 364                                | 6       | 3          | 373     | -%3,19       | %0,00   | %200,00    | -%2,61  |
| 01 Industria                                                                                | 7512                               | 59      | 6          | 7577    | 7710                               | 50      | 9          | 7769    | %2,64        | -%15,25 | %50,00     | %2,53   |
| 02 Eraikuntza                                                                               | 3312                               | 27      | 8          | 3347    | 3253                               | 22      | 4          | 3279    | -%1,78       | -%18,52 | -%50,00    | -%2,03  |
| 03 Zerbitzuak                                                                               | 7020                               | 39      | 5          | 7064    | 7615                               | 41      | 7          | 7663    | %8,48        | %5,13   | %40,00     | %8,48   |
| LANALDIAN BAJA ERAGIN DUTEN IST. GUZTIRA                                                    | 18220                              | 131     | 20         | 18371   | 18942                              | 119     | 23         | 19084   | %3,96        | -%9,16  | %15,00     | %3,88   |
| IN ITINERE BAJA ERAGIN DUTEN IST.                                                           | 2142                               | 16      | 2          | 2160    | 1913                               | 17      | 7          | 1937    | -%10,69      | %6,25   | %250,00    | -%10,   |
| BAJA ERAGIN DUTEN IST. GUZTIRA                                                              | 20362                              | 147     | 22         | 20531   | 20855                              | 136     | 30         | 21021   | %2,42        | -%7,48  | %36,36     | %2,39   |
| BAJA ERAGIN EZ DUTEN IST. GUZTIRA                                                           |                                    |         |            | 18872   |                                    |         |            | 22399   | ---          | ---     | ---        | %18,69  |
| ISTRIPUAK GUZTIRA                                                                           | 20362                              | 147     | 22         | 39403   | 20855                              | 136     | 30         | 43420   | %2,42        | -%7,48  | %36,36     | %10,19  |
| ISTRIPUEN ONDORIOZ BERRIRO IZANDAKO BAJAK                                                   | 686                                | 6       |            | 692     | 973                                | 6       |            | 979     | %41,84       | %0,00   | ---        | %41,47  |
| Emaitzetan --- agertzen duten aldakuntzak ezin izan dira kalkulatu, zatitzailea = 0 delako. |                                    |         |            |         |                                    |         |            |         |              |         |            |         |

Gaurko egunean, datuak are kezkarriagoak dira. Geure zenbaketa arabera, Hego Euskal Herrian 57 langile hil dira lan-istripuen ondorioz: 50 EAEn eta 7 Nafarroan, zehazki.

Istripuak aztertuta, dudarako aukerarik uzten ez duten ondorioztapenak egin daitezke.

Askoz istripu gehiago gertatzen dira aldi baterako kontratua dutenen artean, eraikuntzan dabilzanen artean, enpresa txikietan dihardutenen artean, eta azpikontratetan, eta gero eta maizago gertatzen ari dira langile etorkinen artean ere. Hau da:

- Lan-istripu larri eta hilgarri traumatikoen tasa 2,6 bider handiagoa da aldi baterako kontratua dutenen artean, kontratu mugagabea dutenen artean baino.
- Eraikuntzan, istripu larri edo hilgarri traumatikoa izateko arriskua industriakoaren eta lehen sektorekoaren bikoitza da, eta zerbitzuetakoa baino 4 aldiz handiagoa.
- Lan-istripu larrien eta hilgarrien %26,3 azpikontratetan jazo zen.
- 100 langiletik beherako enpresetan jazotako istripu larrien eta hilgarrien indizea 500 langiletik gorako enpresetakoa halako hiru da.

Osalanek ikerketa bakoitzaren aurrerapenean emandako datuetan oinarriturik, azken asteetan gertatu diren istripu hilgarri eta oso larriei buruzko zifrek egiaztatu egiten dute goian esandakoa. Jazo diren istripu hilgarri (6) eta oso larrien (2) multzoari erreparatuta, horietatik 5 eraikuntzan

jazo dira, 4 azpikontratetan, istripua izan duten langileetatik 4 etorkin ziren, eta istripu horietan guztietan behar bezalako segurtasun-neurririk ez egotea edo lan-prozeduraren ezegokitasuna izan dira zioa.

Datuek guztiok dakigun zer bait egiaztatu baino ez dute egiten: prekarietateak lotura zuzena duela istripuekin, alegia. Baina istripuen egiturazko arrazoiak zein diren guztiok jakinik, zergatik ez zaie aurre egiten? Zergatik ez da egoera hobetzen? ELArentzat erantzuna argia da, bai Gobernuak zein patronalak benetako interesik ez dutelako.

Geroago ikusiko dugunez, Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko 2007-2010 Plan Estrategikoak ez du alderdi horien gaineko neurririk proposatzen.

## **BALIABIDE TEKNIKOAK ETA EKONOMIKOAK**

Baliabide teknikoak, hots, Osalaneko ikuskatzaileak, gero eta gehiago direla diote. Ez da egia. Hainbat teknikari gaitu dituzten arren, (Espainiar Gobernuak neurria errekurritu du), pertsona horiek Osalaneko oraingo langile-zerrendatik irten dira; alegia, ez da langile gehiago sartu zerrenda horretan. Are gehiago, helburuak aipatzean, 2010erako, ikuskatzaileen kopurua Europako mailetara heltzea aurreikusten bada ere, ez da aipatzen zenbaketan Espainiako Estatuko lan-ikuskatzaile guztiak hartzen direla kontuan.

Kontraesan handia da aurrekontu-partida handitu gabe ikuskatzaile gehiago egotea.

Osalanen gastua 16,5 milioi eurokoa izan zen 2007an, BPGaren %0,02koa, hain zuzen. Balio horiek bere horretan iraun dute azken urteetan, eta ez datoz bat, inondik ere, Eusko Jaurlaritzaren superabit handiekin (805 milioi

euro, 2007an). Horrek argi ikusarazten du lan-istripuen aurkako borroka ez dela Jauriaritzaren benetako helburuetakoa, eta esparru horretarako dirufuntsak handitu baino nahiago duela superabitari eutsi.

|                                       | <b>2004</b> | <b>2005</b> | <b>2006</b> | <b>2007</b> |
|---------------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| <b>OSALANen GASTUA (milioi euro)</b>  | 11,1        | 12,9        | 14,7        | 16,5        |
| <b>BPG (milioi euro)</b>              | 53.632      | 57.549      | 61.763      | 66.311      |
| <b>OSALANera bideratutako BPG %</b>   | 0,02        | 0,02        | 0,02        | 0,02        |
| <b>EJren SUPERABITA (milioi euro)</b> | 211         | 545         | 745         | 805         |

## **IKUSKARITZA ETA KONTROLA**

Baliabide ekonomiko eta tekniko urriegi horiek zuzeneko isla dute egindako ikuskapenen kopuruan. 2007an, industriako, zerbitzuetako eta lehen sektoreko 2.761 ETE ikuskatu ziren orotara.

Eraikuntzan, 2006an 5.024 enpresarekin loturiko 2.295 obra ikuskatu ziren, eta 2007an, 4.380 enpresari zegozkien 2.114 obra.

2008ko urtariletik maiatzera bitarteko erritmoa 2007koaren antzekoa edo motelagoa izan da. Tarte horretan, guztira, 1.048 ETE ikuskatu ziren, eta eraikuntzan, ostera, 1.851 enpresari zegozkien 1.286 obra.

Ikuskapen gutxi egiteaz gain, ezertxo ere ez dakigu beraien emaitzen gainean. Izan ere, 2007az geroztik, datu bat ere ez zaigu eman arau-hausteen ondorioz egin diren aktei eta ezarri diren isunen zenbatekoari buruz. Hala ere, gogoratu behar dugu 2006ra arte argitaratutako datuetan bistakoa zela horrelako zehapenen maila eskas-eskasa.

**2007-2010rako      SEGURTASUN      ETA      OSASUN      PLAN**

## ESTRATEGIKOA

Aurreko urteetako emaitzak, eta oraingoak, ezagututa, zentzuzkoa eta arrazoizkoa politikak aldatzea litzateke, baina, ez gaur egungo planek, ez dauden baliabideek, ez dute erakusten norabide horretan joateko asmoa dagoenik. Ez da inongo neurri zorrotzik hartu, goian aipatutako zioei aurre egitearren.

Aitzitik, gizartea sentikortzea eta arazoaz jabearaztea, prebentzioa sartzeari, eta behatokiak, sistemak eta abar eratzea hautatu dute, eta 2007ko urtealdi osoa behar izan dute eginkizun horiei ekin behar dieten lantaldeak eratzeko; eta 2008an iragan den tartean, berriz, lortu beharreko helburua finkatu besterik ez dute egin lantaldeok.

Ekitaldian zehar lantalde bat eratu edo bere helburua finkatu besterik egin ez izanak ondo baino hobeto islatzen du noraino den negargarria lantaldinamika.

ELAk ez du lantalde horietan parte hartzen, bere garaian esan genuenez, lantalde horiek sortuz bere erantzukizunetik itzurtzea baita Jaurlearitzaren xede bakarra, alabaina. Ugazaberiari buru egiteko eta benetako neurriak harrarazteko batere asmorik ez duenez gero, erantzukizuna "guztioi" egotziz, lausotu egin nahi du berea.

Plana abian hasi eta gutxira, baieztatu egin da beraren porrota. ELAk Plana ez babestea erabaki zuen, bere ustez, bertan proposatutako neurriak asmo eta konpromiso urrikoak eta benazko helbururik gabekoak zirelako. Urte eta erdi geroago, emaitzak agerikoak dira: oinarri-oinarrizko gai asko aipatu ere ez dira egiten, onartutako neurriak ez dira ezartzen eta helburuak ez dira erdiesten.

Instituzioen konpromiso hutsala enplegu-emailea administrazioa bera denean ere geratzen da agerian. Hona hemen, baieztapen horren bi erakusgarri:

1. Gobernu Kontseiluak, aurtengo ekainaren 2an, "Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bertako sektore publikoko kontratazioan gizarte- zein ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk aintzat hartzeko" emandako Erabakia. Ebazpen horretan adierazitako ezer ez da berri. Administrazioarekin kontratua egin nahi duten enpresei LAPLak jada xedatutako betebeharrak ezartzen dizkie: segurtasun- eta higiene-neurriak hartzea; prebentzioa sartzea; arriskuen ebaluazioa egitea, prebentzio-ekintzen plangintza egitea, azpikontraten eta enpresa nagusien arteko koordinazioa, informazioa eta prestakuntza ematea...
2. Arriskuen prebentzioa administrazio publikoen eremuan: oraindik ez da abian jarri. Egitate horrek beste egoera batzuk dakarzkigu gogora, hala nola ELAk, duela hilabete inguru, Justizia Administrazioa langileen segurtasun- eta osasun-egoera larriaren inguruan salatutakoa, besteak beste.